


EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana 2020

Ekonomia zirkular baterantz



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO


Mapa

EAEko Hondakinak Prebenitzeko
eta Kudeatzeko Plana 2020


ABIAPUNTUKO TESTUINGURUA




Europa
(4. or.)




EAE
(5. or.)




GIZARTE BERRI BATERAKO OINARRIAK




Araudi
aitzindariak
(6. or.)




Hondakinak
kudeatzeko
hierarkia
(7. or.)



Ekonomia
zirkularra
(8. or.)




AURRERA EGITEKO ERANTZUNA



Plan integral bat
(10. or.)

JARDUNEAN



Erabakiak
hartzen
(12. or)

Programak
(14. or.)

Neurri
lagungarriak
(20. or.)

Jardunbide
egokiak eta
erantzunak
(22. or.)

Plan honek...

- ✓ hondakinen egungo kudeaketa-esparrua zuzentzen du
- ✓ ekonomia-eredu berri bateranzko bidea proposatzen du
- ✓ hondakinei buruzko pentsaera aldatu nahia du eta hondakinak baliabidetzat jotzea du xede

**Ekonomia
zirkular baterantz**

PLANA

HONDAKINAK: norabidea aldatzeko beharra

Hondakinen kudeaketa, zalantzarik gabe, eredu produktiboen ikuspegi globala eta gure ekonomien etorkizuna behin betiko eran markatuko duten gai gakoetako bat da.

HONDAKINAK KUDEATZEA ZERGA-TIK DA ERABAKIGARRIA?

Hondakinak sortzeak eta horiek kudeatzeak denoi eragiten digute eta, horregatik, gai honi dagozkion ekintzak egin behar ditugu. Etxeko hondakinak, industriaren eta erai-kuntzaren jarduerak sortutakoak eta uraren nahiz energiaren hornidurak sortutakoak batzen baditugu, Europar Batasunean 5.000 tonatik gora hondakin sortzen dira urtero. Kopuru hori geldiarazteko (igotzen ari baita), bestelako eredu ekonomiko baten alde egitea beharrezkoa da; izan ere, gaur egungo ereduaren ezaugarriak hauek dira:

«Baliabideen mugak dituen mundo batean lehiatzeko inbertitu dutenek eta pret daudenek baino ez dute biziraungo.»

INGURUMEN ZUZENDARITZA NAGUSIA (EUROPAKO BATZORDEA)

1. Baliabideen eskasia; egoera sostengaezina


2050. urtean, munduan 9.000 milioi biztanle izango direla kalkulatzen da (gaur egun, 7.000 milioi biztanle daude). Biztanle horiek beraien kontsumo-ohiturak aldatuta izango dituzte eta gaur egun erabiltzen diren baliabideen hirukoitza beharko dute.

2. Gure osasunean duen eragina

Hondakinek kutsadura sortzen dute eta, aldi berean, berotegi-efektuko gasak igortzen dituzte, eta horrek guztiak aldaketa klimatikoa ekartzen du. Gainera, horrek guztiak gure bizitzetan eragiten du.

3. Hondakinen osaera gero eta konplexuagoa da

Hondakin konplexuak ditugu: materialen nahasketa, normalean, osagai metalikoak edo manipulatzeko arriskutsuak direnak izaten dituzte.



EUROPAKO EGOERA

Europako Batzordeko datuen arabera, hondakinen sorkuntza handitu egingo da, eta kasurik onenean, egonkortu egingo da sorkuntza hori. Egungo egoeran, hondakinen kudeaketaren politikan konponbide bakarra dago: EUROPA birziklatzen duen gizarte BIHURTZEA, hondakinak sortzea saihesten duen eta hondakinak ahal den heinean baliabide gisa erabiltzen dituen gizarte bihurtzea. Herrialde batzuk horretan modu efizientean ari dira lanean dagoeneko.

Dentsitate industrial eta industria astun oso altua


Urtero EAEn 5,5 milioi tona hondakin sortzen ditugu. Eraikuntzak eta industriak hondakinen % 80 sortzen dute EAEn. Era berean, euskal sektore horiek estatuko BPG industrialaren % 10 dira.

Dentsitate hori Europakoarekin alderatuta lortu da. Esaterako, Europako arku elektrikoak labeek egindako altzairuaren ekoizpenaren % 40tik gora EAEn egiten da.



Azpiegituren sarea

Gaur egun EAEn hondakinak tratatzeko azpiegitura-sare handi bat dago. Hala ere, etorkizuneko egoerari aurre egiteak sektore produktiboek azpiegitura espezializatu berrietan ere inbertitzea ekarriko du.




Administrazio-koordinazioa

Hondakinei buruzko eskumenak Eusko Jaurlaritzaren, hiru Foru Aldundien eta udalerrien artean banatzen dira. Erakunde horien arteko koordinazioak planaren helburuak lortzen lagunduko du, baita emaitza hobek lortzen ere.

Iraunaldi arauemailearen amaiera

Orain arte genituen hondakinei buruzko 3 autonomia-plan hauen indarraldia amaitu da: EAEko hondakin arriskutsuak prebenitzeko eta kudeatzeko plana; EAEko hondakin ez arriskutsuak prebenitzeko eta kudeatzeko plana eta EAEko hiri-hondakinak planifikatzeko eta kudeatzeko arauak.



LURRALDE BEREZI BAT hondakinen dagokienez

Etorkizuneko eredu bat arrakastarekin eraikitzea da helburua. Bereziatasunak onartzea (esaterako, gure dentsitate industrial handia edo esparru arauemaileen berrikuspenak eskaintzen digun behin-behineko aukera) gure erantzukizuna da.

5,5 MILIOI TONA HONDAKIN EAE-N

% 58

HONDAKIN INDUSTRIALAK

- Metalen ekoizpena eta eraldaketa
- Hondakinen eta uren tratamendua
- Egurra eta papera

% 20

HIRI-HONDAKINAK ETA ASIMILAGARRIAK

% 22

ERAIKUNTZAKO ETA ERAISPENEKO HONDAKINAK

Politika aurreratuenekin bat egiteko aukera

Europako zuzentaraua eta indarrean dagoen legedia betetzeaz gain, Planak kontzeptu estrategikoak ere baditu eta kontzeptu horiek hondakinen kudeaketa-sistema efizienteago bihurtu nahi dute, planaren errendimendua hobetu nahi dute eta ekonomia berri bat sustatzeko oinarriak jarri nahi dituzte.

EGUNERATU BEHAR DEN ESKAKIZUN HANDIKO PLANGINTZA-ESPARRU BAT



2008. Hondakinen Esparru Zuzentaraua

- Hierarkia-printzipioaren arabera hondakinen kudeatzeko eta kudeatzeko planak ezartzera behartzen du: prebentzioari lehentasuna eman behar zaio, birziklapena sustatu behar da eta hondakinen botatzea baztertu behar da.




2011. Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 22/2011 Legea onartu zen.

- Prebentzio-planak hartzerari behartzen du.
- Hondakinen prebentzio-programak eta hondakinen kudeatzeko autonomia-planak egitea autonomia-erkidegoei dagokiela ezartzen du.



2013. Hondakinei buruzko euskal planen indarraldia amaitu zen

- Planak eguneratu behar izan ziren eta beste plan bat idatzi behar izan da.



Plangintza-esparru berri bat behar dugu, eta plangintza horrek lurralde osoan modu integralean jarduteko aukera emango digu.

Flandria, Danimarka eta Eskozia

Lurralde aurreratuenek hondakinen kudeaketa-hierarkia aplikatzearen aldeko apustua egin dute, argi eta garbi. Horregatik, birziklapen-merkatuetarako mesedegarriagoak diren baldintzak sortu dituzte tresna juridiko eta ekonomikoen erabilera optimoari esker. Hauek dira tresna horiek:


- Zabortegetan hondakinen botatzea debekatzea.
- Hierarkiaren arabeko tasak eta zergak ezartzea.
- Ekoizlearen ardura-kontzeptua zabaltea.

EAEko hondakinen prebentzeko eta kudeatzeko planaren barnean politika aurreratuenak eratzen dituen tresna bat dago, hau da, **kudeaketa-hierarkiaren** inbertsioa eta horretan inspiratzen da.

Hierarkiaren begirada berri honek berez garrantzitsua dena berriz ordenatu du, eta hondakinen ez sortzeko, ingurumena zaintzeko eta gizakien osasuna zaintzeko aukerarik onena prebentzioa dela sustatzen du.


Horren ondoren daude jatorrian bereizketa eta, batez ere, berreraikitze prestakuntza, birziklapena baita hainbat balorizazio-mota ere. Jarduketan honetako aurreko etapetik aldeak markatzen ditu eta **hondakina baliabide** gisa erabiltzeko kontzeptua abian jartzeko aukera ematen du. Ez da ahazten eliminazioaz, baina tratamenduko azken aukera izango da. Plan hau aplikatuta, etorkizunean bideragarria izango den ekoizpen- eta ekonomia eredu bakarrera iristea da asmoa, hain zuzen, ekonomia zirkularrera.

Oinarrizko tresna bat: hondakinak kudeatzeko hierarkia



Zaborteia ezin da izan birziklatzea baino tratamendu-aukera interesgarriagoa, ez teknikoki ezta ekonomikoki ere.

Urtero EAEko zabortegetara eramaten diren materialek 47 milioi euroko balioa dutela kalkulatzen da. Kopuru hori urteko 1.500 enplegu ertainen baliokidea da.



Hondakinak prebenitzeko eta kudeatzeko plana

Gure berezitasunetara egokitzea

Plana gure lurraldera, gure ezaugarrietara eta hondakin sorkuntzan eta kudeaketan inplikaturako hainbat agentetara egokitzen da.

Araudiak betetzea

Europako eta estatuko betebeharrak zorrotzak betetzen ditu.

Emaitza efizienteak lortzea

EAEko arazoak azterketa zehatzak eta ditugun baliabideak aprobetxatuta Planean proposaturako neurriak emaitzak maximizatzen lagunduko dute.

Etorkizunerako prestatu behar dugu

Agente guztien lankidetzaren lanari esker eta EAEko berrikuntza-indarrari esker, hondakin gaian egindakoa gaitzeko eta Europar Batasuneko herrialde aurreratuenekin bat egiteko asmoa dugu.

EKONOMIA ZIRKULARRA: etorkizuneko bide bakarra

Eredu hau naturan oinarritzen da; bertan, prozesu zikliko batean, guztia aprobetxatzen da. Bide bakarra da modu arduratsuan ekoiztea eta kontsumitzea, hondakin gutxiago sortzea eta guztia berriz aprobetxatzea.

XIX. mendetik jasotako sistema ekonomiko linealekin bizi gara eta sistema horiek behin erabili eta ondoren botatzen diren lehengaien erauzketan oinarritzen dira. Planteamendu berriak, behingoz, eredu ekonomiko desberdina eskaintzen du. Ekonomia zirkularrean, ikuspegi ekosistemikoa hartzen duen ekonomia horretan, berrerabiltzea, berrerabiltzeko prestatzea eta birziklatzea arau bihurtzen dira eta hondakinak hondakintzat jotzeari uzten zaio **baliabide** bihurtzeko.

Ekonomia zirkular baterantz egiteko, hondakinen sorkuntza gutxitzea beharrezkoa da, ekodiseinuari eta ondasunen eta zerbitzuen ekoizpenean materialen erabilera optimizatzeari lehentasuna ematea, birziklapena

eta berrerabilpena areagotu behar dira eta erraz birzikla daitezkeen edo berriz erabili daitezkeen material berriak erabili behar dira eta, azkenik, jarduera- eta lanpostu-iturri berri gisa beharrezkoa da material hauentzat merkatu berriak irekitzea. Mundu naturalaren efizientzia berdintzeko nahiarekin –EAEn materialen produkzio-erabilera luzaroago mantenduko bagenu eta material horiek berriz erabiliko bagenu–, gure lehiakortasuna nabarmenki hobetuko genuke.

9 Berrerabiltzea, Birziklatzea, Berreskuratzea

Ahalik eta material gehien birziklatzea eta berrerabiltzea da ideia nagusia eta, horrela, zikloa berriz ere hasiko da

1 Baliabideak erauzteak

Baliabide naturalak modu jasangarrian erauzi behar dira, planetaren oreka zaintzeko eta baliabideak ez amaitzeko.

8 Eliminazioa


Helburua hondakin-eliminazioa ahalik eta gehien gutxitzea da

7 Produktu-bilketa

Efizientea izan behar du eta ahalik eta material gehien eraman behar da birziklatze-eta berrerabiltze-instalazioetara

6 Hondakinen bereizketa

Hondakinak ondo bereiztea da



2 Ekodiseinua

Produktu baten diseinu-mo-
dua gakoa da, produktu hori
berri ondo erabiltzeko eta
ahalik eta ingurumen-erag-
in txikiena izateko bere
bizitza-zikloan zehar

Ekodiseinu on baten ezaugarriak

- Materiala murriztea
- Desmuntatze bidezko diseinua
- Monomaterialtasuna
- Iraunkortasuna
- Funtzio-aniztasuna
- Murrizte dimentsionala
- Isuriak murriztea

3 Fabrikazioa

Fabrikazio-prozesu
guztia ahalik eta
modurik
jasangarrienean
egitea

4 Banaketa

Merkantziak
garraiatzeko
ahalik eta efizienteen
izan beharko
luke

5 Produktu-erabilera

Produktua modu arduratsuan erabiliz
gero, produktuaren balio-bizitza luza
daiteke eta balio-bizitza horren
amaierara baldintzarik onenetan hel-
daiteke

-CO₂
Isurien murrizketa

Enplegua sortzea

Ekonomia zirkular bateranzko trantsizioak EAEko
lehiakortasuna handitzeko aukera ematen digu,
baita kalitatezko enplegua sortzeko ere.

Gaur egungo krisi ekonomikoko egoera honetan, hondakinen kudeaketa da lehenengo deskuidatzen den gaietako bat. Sektoreen ustez, beraien prozesuetan ingurumena zaintzea kostu bat da inbertsio bat izan beharrean. Baina hori ez da hala.

Ingurumeneko politiketan inbertitzea hazkunde ekonomikoan inbertitzea baita enplegua sortzeko iturri bat ere bada.

Ekonomia zirkular bat sustatzeak lanpostu berriak sortzeko gaitasun garrantzia ekartzen du, esaterako, arlo hauetan: energia iturri berriztagarrien bidez ekoizteko arloan, efizientzia energetikoaren arloan, hondakinen eta uraren kudeaketan, airearen kalitatean, biodibertsitatea berreskuratzeko eta

preserbatzeko arloan, aldaketa klimatikora egokitzeko arloan eta azpiegitura berdeak garatzeko arloan.

2014ko uztailearen 4an, Europako Batzordeak 2030. urterako helburu batzuk proposatu zituen eta, helburu horien bidez, enpresa- eta lan-aukera onak egongo direla sumatzen da. Izan ere, helburu horiek direla eta, EBko hondakinen prebentzioa eta kudeaketaren arloan 400.000 enplegutik gora sor daitezke.

HONDAKINA = BALIABIDEA

Hondakinak nahi ez den zabortzat jotzeari utzi behar zaio, BALIABIDE gisa eta aprobetxatu behar dugun lehengai-iturri gisa ikusteko. Europar Batasunak uste du horrekin CO₂ isuriak 62 milioi tona gutxituko direla.

(EUROPAKO BATZORDEAREN COM 398/2014. EKONOMIA ZIRKULARRERANTZ)



Plan INTEGRAL bat: aurrera egiten jarraitzeko erantzuna

Gaur egungo egoeran, aurreikusteko moduko baliabideen eskasia eta EAeko dentsitate industrialak daude Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plan honen oinarrian. Aurrera egiten jarraitzeko aldaketak onartu behar dira.

PLANA ZERGATIK DA INTEGRALA?

Aurreko planen indarraldiaren amaiera eguneratzeko eta hobetzeko aukera bat da. Lehenengo aldiz, lurralde osoa barnean hartzen duen plan global bat izateko aukera ematen digu; horrez gain, plan honetan, hondakinen korrante guztiak barnean hartuko dira eta EAEn hondakinak planifikatzeko eta kudeatzeko eskumenak dituzten hainbat erakunde lankidetzan arituko dira.

Ikuspegi integrala aplikatzea, hondakinei buruzko arazo nagusiak modu efizientean konpontzeko beharrari erantzuna emateko bidea da; izan ere, horrela, gizarteko maila guztietan sortzen duten eragina gutxiko da.



Hondakin guztiak sartzen dira planaren barnean

Orain arte genituen hondakinei buruzko autonomia-esparruko hiru dokumentuak plan bakar batean bildu dira. Dokumentu horiek hondakinen hainbat tipologiei buruz bereizita jarduten zuten (hondakin arriskutsuak, hondakin ez arriskutsuak, hiri-hondakinak).



Planak lurralde osoaren ikuspegia dauka

Lehenengo aldiz, Plan autonomiko honen helburuek hiru lurralde historikoetako hiri-hondakinen Planak (Foru Aldundien eskumenak diren planak) 2016. urtean berritzeko oinarri gisa balioko dute.



Inplikaturaren dauden agente guztiak lankidetzan arituko dira eta koordinatuko dira

Planaren azken lanketan, sektore guztiak talde-lanean aritu dira, baina, horrez gain, behar hau ere ezartzen du:

- Dauden koordinazio-mekanismoak, esaterako, Hiri Hondakinen Koordinazio Organoa (HHKO) mantentzea eta optimizatzea.
- Eusko Jaurlaritzako beste Sail batzuekiko koordinazio-foro berriak sortzea.

2020. URTERAKO BEHIN-BEHINEKO HELBURUA DUEN PLAN BAT

Argia eta egituratua

Europak eta etorkizunak eskatzen diguten ildoari jarraiki, Planak bost helburu estrategiko ezartzen ditu eta horiek 140 jarduketan bidez beteko dira.

Helburu eta adierazle espezifikokoak ere definitzen dira lehentasunezko korrante bakoitzerako. Hiru urtean behin aldizkako ebaluazioak egitea ezartzen da. 2016. urtearen amaieran, ezarritako helburuak bete direla ebaluatzeko kontrol bat egingo da eta 2017 - 2020 aldirako jarduketa berriak edo neurri zuzentzaileak ezarriko dira.

Serioa eta zorrotza

Planak Europako araudiaren eskakizun zorrotzak beteko ditu eta, horretarako, tresna-aukera zabal bat izatea planteatzen du, horrela, helburu estrategikoak lortzeko. Tresna horien artean, legegintza-aldaketak nabarmentzen dira hondakinen balorizazioari eta helmugari dagokienez.

Elkarlanekoa

Onartu baino lehen egindako partaidetza-prozesu baten bidez eratu da Plan hau. Izan ere, 166 alegazio jaso dira eta horiek guztiak Planaren azken idazketan kontuan hartu dira. Alegazio horien % 30aren ondorioz, Planean berariazko aldaketak egin dira.

Era berean, sektoreko bilerak egin dira eta 140 agentek parte hartu dute bilera horietan.



Planaren helburu nagusia hondakinen sorkuntza gutxitzea eta horien kudeaketa optimizatzea da, horrela, jasangarritasun-politika aurreratuenetarantz jotzeko.



Plan honek 2020. urtean hondakinen prebentzioan eta kudeaketan puntako herrialdea izateko berebiziko aukera ematen digu.

Aurrekontuko
6,5 milioi euro

5 helburu estrategikori
erantzuten dieten **5 programa**

140 jarduketa

Inplikaturatuta dauden agenteak:
administrazio publikoak,
agente pribatuak
eta herritarrak

Sortu beharreko enplegua:
1.200 lanpostu

ekonomian berriz txertatutako
hondakinen
3,5 milioi tona


Sortu gabeko
0,5 milioi tona
hondakin

Plan honek erabakiak hartzen laguntzen digu

Plan honek preben-tzioaren, berrera-biltzeko prestakuntzaren eta produkzio zikloan berreskura daitezkeen materialak txertatzearen aldeko apustua egiten du.


Plan honetan, hondakinen kopurua eta arriskugarritasuna kontuan izanda, hondakin-korronteei lehentasuna ematen zaie.

Plan honek hondakinen kudeaketako konponbide berritzaileak sustatzen ditu.



Helburuak

Korronte nagusiak




Tresnak



- Tresna politikoak edo plangintzakoak**
Indarrean dauden HHen jarraibideetan eta lurralde-planetan, Planaren helburuak integratzea
- Tresna legegileak edo arauemaileak**
Zabortegien dekretua eta altzairugintzako zepen erabilaren dekretua aldatzea
- Jarraipenerako, kontrolerako edo pizgarria kentzeko tresnak**
Ekoizleei zein kudeatzailei jarraipena eta kontrola egiteko programak, isuriaren gaineko zergak eta sortzeagatiko ordainketa
- Koordinatzeko eta parte hartzeko tresnak**
Hiri Hondakinen Koordinazio Organoa (HHKO), Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea (Udalsarea 21), beste agente publiko eta pribatu batzuekiko koordinazioa
- Ekonomia sustatzeko tresnak**
Diru-laguntzak, Teknologia Garbien Euskal Zerrenda
- Ikertzeko tresnak**
Hondakinen prebentzioari zein birziklapenari buruzko erakustaldi-proiektuak
- Ezagutza teknikoa sortzeko eta hedatzeko tresnak**
Aukeren edo bideragarritasunaren azterketak, irizpide teknikoak eta gidak
- Informatzeko, trebatzeko eta sentsibilizatzekeo tresnak**
Sektoreekin jardunaldi teknikoak eta prestakuntzakoak egitea, kontsumitzaileak sentsibilizatzekeo kanpainak egitea

1. Prebentzio-programa

Helburua: Hondakin guztien sorkuntza eta horien arriskugarritasuna % 10 gutxitzea



Gaur egungo kudeaketa-politikak, batez ere, hondakinen ekoizpena prebenitzeko dira. Normala den bezala, ekoiztu ez dena ez da kudeatu behar.

Orain arte, EAEn indarrean izan diren hondakinen planek hondakin arriskutsuen, ez arriskutsuen eta hirikoen hautapenean, bilketan eta tratamenduan aurrerapausoak ematea ahalbidetu digute. Beste pauso bat emateko unea da eta ekonomia hondakin-sorkuntzatik bananduko duten politiken aldeko apustu garbia egiteko unea da, hau da, hazkunde ekonomikoak ez du *per se* hondakin-sorkuntzarekin lotuta egon behar.

Plan honek helburu hori oso argi nabarmentzen du eta, horretarako, 2020rako erronka handi bat jartzen du: 2010. urteko datuekin alderatuta, urtean hondakinen milioi erdi tona hondakin sortzeari uztea.

Erronka hori lortzea ez da erraza izango. Joera aldatu nahi badugu eta hondakinak gutxitzea lortu nahi badugu, baita BPGa handitu nahian ere, inplikaturik dauden agente eta sektore guztien konpromisoa beharko da.

ZER ESAN NAHI DU MILIOI ERDI TONA GUTXITZEAK?


Ekonomia hondakin-sorkuntzatik banantzen.

EAEko hondakinen sorkuntza % 10 gutxitzea, hau da, 0,5 milioi tona gutxiago sortzea badi-rudi kopuru txikia dela; baina testuinguruari erreparatzen badiogu erronka handia dela ikusiko dugu. Pentsa transatlantiko batean, eta transatlantiko horrek frenatzeaz gain, atzera egitea ere nahi dugula. Sorkuntzaren joerak 2020an jasanezina izango den egoera batera garamatza; joera horren arabera, plan hau gabe, 6 milioi tona sortuko genituzke eta 3,5 milioi tona botako genituzke urtero.


Planak joera hori frenatzea aurreikusten du eta, horrez gain, hondakinen kopurua % 10

gutxitzea proposatzen du. Horrek esan nahi du, gutxi gorabehera, % 18, egiazki, gutxituko litzatekeela orain arte bezala jarraituta egongo litzatekeen egoerarekin erkatzen badugu.

Termino ekonomikoetan, hondakinen tona-kopurua / BPG adierazle gisa kontuan izanda eta orain arte 0,0834 t/€ egoeran egonda, helburuak 0,0750 t/€ egoeran egotea proposatzen du 2020. urtean.



2020



3 JARDUKETA-ILDO NABARMENAK

1 Sortzeagatiko ordainketa

«Kutsatzen duenak ordaindu egingo du» eta «birziklatzen eta gutxitzen duenak gutxiago ordainduko du» esakunetan oinarrituta, hondakinen sorkuntzagatiko ordainketa EBko 16 estatu kidetara zabaldu da -horrez gain, Austria, Finlandia eta Irlanda osoan aplikatzen da-.

Neurri honetaz gain, beste pizgarri batzuk ere egongo dira, adibidez, ingurumen-aholkularitza, diru-laguntzak edo inbertsioak finantzatzeko laguntzak.

2 'Life Cycle Thinking' eta ekodiseinua

Lehengaien eskasia dugunez, erronka handietako bat erabilera-bizitza luzea izateko eta ingurumena errespetatzeko diseinatzen diren produktuen alde egitea da, hau da, produktu horiek:

- birziklatutako edo birziklagarriak diren materialak erabiliko dituzte
- substantzia arriskutsu gutxiago izango dituzte
- mantentzea erraztuko dute
- konpontzeko eta desmuntatzeko errazak izango dira.

Planak ingurumenean eragin gutxiago duten produktuak erabiltzea zailtzen duten oztopoak hausten saiatzeko neurriak ezartzea proposatzen du:

- Erosketa publiko berdea sustatzea
- Europako ekoetiketa sustatzea eta produktuen ingurumeneko aitorpenak sustatzea (EPD)



*Ekodiseinua aukera eztabai-
daezina da. Ekodiseinuari
esker, 2000. urtetik produktu
berdina ontziratzeko materi-
ala % 15 murriztu da.*

3 Ohitura berriak izateko sentsibilizatu beharra

Administrazioek modu koordinatuan lan egingo dute agente guztiak sentsibilizatuta egoteko dituzten hondakinen produkzio, kontsumo eta kudeaketako ohituren bidez, ingurumen-eraginak gutxitzeak duen garrantziari dagokionez. Ildo horretatik, erosketa arduratsua sustatuko da, adibidez, ontzirik gabeko produktuak erostea edo produktuen berrerabilpena sustatzea. Horrela, erabilera jakin baterako balio ez duten produktuak beste erabilera baterako balio dezakete. Epe ertainean, etorkizuneko kontzeptu bat ekonomiaren zerbitzuetza izango da, hau da, gure ekonomia zerbitzuen erabileran oinarritzea eta ez produktuen erosketan.

Adibideak:

Elikagaien xahutzea murriztea: Produktuak soltean, ontzirik gabe edo gutxieneko ontzi batekin erosteak ontzi-hondakinak sortzea eta elikagaien hondakinak sortzea sahiesten du. EAEn elikagaien % 8 botatzen da, ezta sukaldatu gabe ere.


Ekodiseinua: Gehienbat material birziklagarriekin edo birziklatuekin fabrikatzeko diseinatu diren etxebizitzak daude. Etxebizitza horiek baliabide naturalen kontsumoa eta hondakinen sorkuntza gutxitzen dituzte.

Zergatik ez dugu aprobetxatzen dugun puntako egoera?

EAEk eta bertako enpresa-sareak ekodiseinuko gaietan nabarmentzen den ibilbidea daukate. 2011. urtetik Basque Ecodesign Center erakundea (ekodiseinuaren Europako bigarren zentroa) dago EAEn eta Europa hegoaldeko berrikuntzako interesgune bakarra da. Innobasque agentzia ere nabarmentzen da, ELGaren erreferentea da agentzia hori eta 4Helix eredia izeneko ezartzen lehena da. Bertan, gizarte zibilak, enpresako eta industriako ikerketa-zentroek eta sektore publikoak elkarrekin jarduten dute. Hori guztia eta EAE I+Gren arloan gehien inbertitzen duen erki-degoa (% 2,19) dela kontuan izanda, material berriak garatzeko ere puntako herrialde izatearen alde egiteko eta enplegu berdea sortzen duten produktuen alde egiteko aukera ematen digu.

2. Gaikako bilketa eta bereizketa programa

Helburua: Hondakinen gaikako bilketa eta bereizketa gutxienez % 75ekoa izatea 2020an, eta bilketa-sistema espezifikoak ezartzea arazo bereziak eragiten dituzten hondakinentzat



Prebentzioaren ondoren, bilketa hobetzea eta gaikako bereizketa funtsezkoak dira; zeren, ezbairik gabe, materialak edo energia berreskuratzea ahalbidetzen duen bestelako edozein birziklapen-tratamenduren edo balorizazioaren aurreko pausoa da. Gainera, material horiek berreskuratzea askoz zailagoa da nahasitako hondakinetatik egiten bada.

Hondakin arriskutsuen kasuan, are garrantzitsuagoa da; izan ere, arriskugarritasun txikiagoko beste hondakin batzuk kutsatu eta masan bildutako hondakinei aplikatu ahal zaizkien etorkizuneko tratamenduak indargabetu ditzakete.

3 JARDUKETA-ILDO NABARMENAK

1 Nahasturaren aurkako borroka

Hondakin industrialen zati bat nahasita jasotzen da, eta horrek hondakinaren balorizazioa zailtzen du edo eragozten du. Horregatik, planaren arabera, ezinbestekoak dira hauek guztiak:

- Industriak balioztatu daitezkeen hondakin guztiak bereizi ditzala, baita ontzi industrialak ere.
- Zabortegetan baloriza daitezkeen hondakinak dituzten produktu nahasirik ez da onartuko.
- Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen (EEH) kasuan, adibidez, jatorrian egin beharreko bereizketa funtsezkoa da, ondoren, kalitatezko produktuak lortzeko.


2 Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundien eta udalerrien arteko koordinazioa

Gaika biltzeko eskumena Foru Aldundiena eta udalerriena da. Testuinguru honetan, hiri-hondakinak jasotzeari eta kudeatzeari dagokionez, erakundeen arteko lankidetzaren ezinbestekoa izango da.



3 Herritarrentzako komunikazio-kanpainak

Hezkuntza-jarduketek eta sentsibilizazio-jarduketek lehentasunezkoak izaten jarraitzen dute, ez soilik etxean jatorrian bereizteak duen garrantzia zabalteko, baizik eta hondakin bakoitza dagokion edukiontzira botatzeko eta Garbiguneak eta puntu berdeak behar bezala erabiltzeko. 2013an, EAEn 70.000 tona ontzi jaso ziren eta horietatik % 18,6 «desegokiak» ziren, hau da, edukiontzi horian gaizki botatako hondakinak ziren.



3. Berrerabiltzeko prestakuntza, birziklapen eta balorizazio programa

Helburua: Hondakinak berriz erabiltzeko prestakuntza, birziklapena eta balorizazioa % 60raino handitzea, EAEko arazo nagusiei irtenbidea emanez.

Hondakina baliabide bihurtuko da. Hondakina lehengai gisa. Hori da ekonomia zirkularrereko inflexio-puntua. Balioa duelako, esku artean duguna erabiltzen ikastea.

Horretarako, hondakinak berriz erabiltzeko prestakuntza, birziklapena eta balorizazioa sustatzen dituzten politikak eta programak ezinbestekoak dira eredu aurreratu baterako, eta behar adina azpiegitura izateak aldea markatzen du.

Une honetan, kopuru txikitako sortutako hondakinen korrante batzuetan izan ezik, lurralde-plangintzetan garatutako azpiegiturak eta aurreikusten diren azpiegiturak askizat jotzen dira Planeko helburuak lortzeko.

3 JARDUKETA-ILDO NABARMENAK

Berriz erabiltzeko prestatutako produktuak merkaturan erabiltzea eta horiek merkaturatzea sustatzeko, Planak hainbat neurri aurreikusten ditu:

1 Hondakinen erabilerak erakusteko proiektuak



Gaur egungo testuinguruan, ezinbestekoa da lan egitea hondakinak baliabide izateko transformazio-aukera ematen duten teknologia berriak etengabe probatzeko, kalitate-bermeak eskainiz. Alde horretatik, hondakinetatik eratorritako materialekin jakintza eta esperientzia berriak zabaltzen dituzten erakustaldi-proiektuak (gaur egun 10 daude martxan) tresna-gakoak eta zeharkako tresnak izango dira planean zehar. Horietan inbertitzea funtsezkoa da, ekonomia berri baterantz jotzeko eta enplegu berdeak sortzeko aukera ematen digutelako.

2 Berreskuratutako materialen erabilera aplikatzea

Hainbat ekoizpen-aplikaziotako hondakinetatik berreskuratutako materialak erabiltzeko baldintzak zehaztea aurreikusten du Planak.

3 Hondakinetatik datozen kalitatezko materialen erosketak publiko berdea

Sektore publikoak esparru arauemaile berriak ezartzeaz eta proiektu berriak sustatzeaz gain, faktore eredugarria ere izan behar du. Administrazioek erosketak publiko berdearen irizpideak sartzen dituzten heinean, horiek sistema dinamizatzen lagunduko dute eta, horrela, hondakinetatik datozen kalitatezko produktuetarako merkaturak sortuko da.



4. Eliminazioa optimizatzea

Helburua: Lehen mailako hondakin gutxiago botatzea, hurbiltasun- nahiz autoaskitasun-printzipioak aplikatzea eta dauden zabortegien eragina gutxitzea

EAEn zabortegi berriak martxan jartzea eta merkatuko prezioen gain egoera ekonomikoak izan duen eraginagatik, hondakinak zabortegietara eramatea askotan izan da aukera ekonomikorik interesgarriena. Hala ere, hondakinen balorizaziorako bestelako kudeaketak bilatzeari pizgarria kentzen dio eta birziklapeneko industria aurreratu bat ezartzeari modu negatiboan eragiten dio.



Joera hori lehengoratzen lagunduko duten neurriak aplikatzeko beharra dagoela eztaba daezina da. Izan ere, horrela, zabortegira ez da inolako hondakinik eramango, betiere, hondakin horiek ez badute lehen mailako tratamendurik izan edo hondakin horretatik balioa lortzeko aukerak ez badira aztertu. Helburu espezifikotako bat 2016rako lehen mailako (tratatu gabeko) hiri-hondakinik ez botatzea da.

3 JARDUKETA-ILDO NABARMENAK

1 Balioztatu daitezkeen hondakin guztien isuria debekatzea
Ondoren beste erabilera bat izan dezaketen hondakinak ez dira deuseztatu behar, galera izango litzatekeelako baita ekonomia zirkularraren ereduaren inbertsio eza ere.

2 Isuriaren gaineko zerga
Balioztatu ezin daitezkeen hondakinarako, isuriaren gaineko zerga bat ezartzea proposatzen da. Neurri honek agenteak animatu nahi ditu balorizazioa eta prebentzioa sustatuko dituzten ekintzetan inberti dezaten.

3 Zaintzeko eta kontrolatzeko baliabideak gehitzea
Kontrolatzeak eta zaintzeak helburu bat dute: deuseztapen-instalazioen erabilera zuzena bermatzea. Era berean, osasunerako eta dauden hondakindegietako ingurumeneko arriskuak gutxitzeko neurriak hartuko dira.



5. Administrazioaren eredugarritasuna eta gobernu egokia

Helburua: Informazioaren kalitatea eta gardentasuna indartzea; administrazioko kudeaketa sinplifikatzea eta arintzea, eta merkatu berdea nahiz enplegu-sorkuntza sustatzea



Administrazio-kudeaketa hondakinen Plane-ko helburuak lortzeko faktore garrantzitsua da. Kudeaketa hori hobetzea eta administrazio-erantzun berriak (sektorearen gaur egungo beharretarako egokiagoak direnak) pentsatzea, zeharkako ardatz estrategiko bihurtu da.

Aukera nabarmenetako bat merkatu berdeen arloan dago. Merkatu horren jarduera-bolumena eta bere etorkizuneko aukerei esker merkatu erakargarrietakoa eta berritzaileenetakoa den eta etorkizun handienetakoa duen merkatuen artean dago. Erakundeek horren alde egin dezakete dituzten tresna anitzen bidez.

3 JARDUKETA-ILDO NABARMENAK

1 Informazioa hobetzea

Azken urteetan, Eusko Jaurlaritzak datuak biltzeko garaian aurrera egin duen informazio-sistema bat egin du, baina, hala ere, oraindik ere beharrezkoa da hondakinei buruzko informazioaren kalitatea hobetzea.

Hondakinen inbentario-eguneratzea arintzeak eta datuak kalkulatzeko metodologia komunak ezartzeak informazio-sistema hobetuko dute.

2 Administrazioa sinplifikatzea eta arintzea

Hondakinei buruzko izapide erredundanteak identifikatzea eta kentzea da, baita izapidetze elektronikoa sustatzea ere.

3 Merkatu berdearen sustapena

Prestatutako produktuei berrera-biltzeko eta berreskuratutako materialeri nolabaiteko aukera ematea, dinamizazio ekonomikoaren eta enplegu-sorkuntzaren iturri gisa. Administrazioak horien sendotzea sustatuko du merkatu-aukerak eta enplegu berdearen hobiak aztertuta. Administrazioen arteko lankidetzak ere garrantzitsua da, erreforma fiskal baten aukerak aztertzeko. Erreforma fiskal horrek ingurumen-itzulera eta itzulera ekonomikoak dituen jarduerari lehentasuna emango dio.



Ez da erraza izango, baina lor daitekeen erronka bat da, lankidetzan aritzen bagara

EAEko hondakinen Planeko laguntze-neurrien eta tresnen helburua ekoefizienteagoa den eredu bateranzko aldaketa bultzatzea da. Eredu horretan agente guztiak protagonista dira.

Ekonomia zirkularraren ereduari jarraiki, planaren azken helburua inplikaturik gauden agente desberdinak hondakinak ekoizpen-katean berriz integratzeko prestatuta egotea sustatzea da. Horrek esan nahi du denboran eta baliabideetan ahalegina egin behar dela, ekoizpen-prozesuak hobetzeko eta optimizatzeko; eta, argi eta garbi, berrikuntzaren, ikerketaren eta bizitzaren nahiz kostuen azterketaren aldeko apustua egin behar da. Beste era batera jarduten hasi behar dugu. Horretarako, neurri arauemaileak propo-

satzeaz gain, **3 milioi euro** bideratuko dira erakustaldi-proiektu, diru-laguntza eta bizi-tza-amaieraren irizpideak onartzeko, besteak beste.

Ardurak eta betebeharrak betetzeaz harago, agente desberdinak etorkizuneko konponbideak bilatzen lankidetzan aritzea ezinbestekoa da, bakoitzak bere ezagutzarekin ekarpenak eginda eta proposamenak eginda. Aurretik dugun erronka garrantzitsua da, baina elkarrekin lor dezakegun arrakastazko esperientzia bat eraiki dezakegu.



KOAK

LANKIDETZAKOAK

EZAGUTZARENAK



LEGEGINTZAKOAK EDO ARAUDIARI DAGOZKIONAK

Hondakinen erabilera berriari normalizazioa eta baimena.



KOORDINAZIOA ETA PARTAIDETZA

Hiri Hondakinak Koordinatzeko Organoa (HHKO).

Udalsarea 21 sarea.

Beste Sail batzuekin, ekoizpen-sektoreekin, balorizatzaileekin eta hondakinen kudeatzaileekin hitzarmenak eta akordioak egitea.



SUSTAPEN EKONOMIKOAK

Teknologia Garbien Euskal Zerrrenda.

Diru-laguntzak ematea hondakin gutxiago sortzen dituzten edo egungo korronteen balorizazioa handitzen duten ekoizpena egitea dakarten teknologiei edo proiektuei (EAE gai honetan laguntza gehien ematen dituen autonomia-erkidegoa da). Laguntza hauek beharrezkoa den mugimendua sortzen duen elementu katalizatzaile bat bezala balio dute.

Erosketa eta kontratazio publiko berdea (EKPB)

Aktibo dagoen tresna handietako bat da (EAEn egiten den erosketa berdearen bolumen ekonomikoa, gutxi gorabehera, EAEko BPGaren % 14 dela kalkulatzen da). EKPBk produktuak edo zerbitzuak erosteko prozesuan horiek bizitza-ziklo guztian duten ingurumen-eragina kontuan hartzen du. EKPBk duen abantaila bat, hobeak diren produktuen eta zerbitzuen merkatu berriak garatzea sustatzen duela da.



IKERKETA

Eusko Jaurlaritzako beste Sail batzuekin lankidetzan hainbat arlotan erakustaldi teknologikoaren proiektuak gauzatzen ari dira.

Bigarren mailako materialekin fabrikatutako produktuak erabiltzeko ekimenak sustatzea eta horiei laguntzea. Ekodiseinua



EZAGUTZA TEKNIKOAK SORTZEA ETA HEDATZEA

Beste aukera batzuk edo bideragarritasuna aztertzea.

Enpresei, udalei eta beste herri-administrazioei zuzendutako irizpide teknikoak eta gidak (ekodiseinua, eraikuntza iraunkorra, birgaikuntza, Erosketa Publiko Berdearen agiriak, ordenantza-ereduak...).






INFORMAZIOA, PRESTAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA

Herritarrei eta enpresei informazio argia, jarraitua eta koordinatua ematea beraien jarrerek dituzten ondorioei buruz eta horiek saihesteko egin dezaketinari buruz.


Jardunaldi teknikoak eta trebakuntza-jardunaldiak, sektore ekoizleekin edo hondakinen hustulekuekin.

Kontsumitzaileak sentsibilizatzeko kanpainak.



Euskal Autonomia Erkidegoa hasi da jarduten

Dagoeneko EAEn gauzatzen diren jardunbide egokien hautapen bat da hau eta hondakinen Plan integral berriarekin bat egiten du hautapen horrek.



PREBENTZIOAN

Elburgo udalerrian 2005. urtetik komunitatean egiten da konposta hainbat ekimenen bidez: herritarrak sentsibilizatzea, konpost-ontziko instalazioekin esperientzia pilotua egitea, etxeetako edukiontziak entregatzea, utzi beharreko hondakinen zerrenda ematea eta konpostaren azken banaketa egitea. Gaur egun, herrian ohikoa da konpost egitea eta konpost egiteko maisua ere badute. Maisu honek azken produktuaren kalitatea bermatzen du.

Gasteizko «BERRERABIL» programa online plataforma bat da. Plataforma honen bidez, objektuak bota nahi dituzten pertsonak objektuak eskuratu nahi dituzten beste pertsona batzuekin harremanetan jartzen dira. Proiektuaren xedea hau da: hondakin guztiak murriztea eta, horretarako, zaborretan utzi diren eta bigarren erabilpen bat izan dezaketen gauzakiak berrerabiltzea. Vitoriareutiliza.com

GAIKAKO BILKETAN ETA BEREIZKETAN

2010. urtean Bilboko herritarrei etxeko edukiontzi txikiak eman zitzaizkien. Edukiontzi horiek hainbat pila- eta bateria-motetarako hiru atal ere bazituzten. Edukiontzi horiek estetikoak, erosoak, erabiltzeko eta garraiatzeko errazak ziren. Ondoren, ordurako bazeuden edukiontzien sarean hustu behar ziren.

Bizkaiko Foru Aldundiak Kooperarekin batera, tamaina txikiko etxeko hondakinak (ehun-gaiak, etxetresna elektrikoak, bazarreko objektu txikiak, liburuak, jostailuak eta antzerakoak) berriz erabiltzeko,

BERRERABILTZeko PRESTAKUNTZAN, BIRZIKLAPENEAN ETA BALORIZAZIOAN

Ekoguneko (Kutxabank/Miramón) baratzeen obra zibila eraikuntzako eta eraispeneko hondakinetatik zetozen ale birziklatuekin egin zen.

hondakin horiek biltzeko eta konpontzeko zerbitzu bat dauka, 205 pertsonari enplegu soziala ematen die zerbitzu horrek, gainera, eta udalerriek % 35 aurrezten dute hondakinen kudeaketan.

ELIMINAZIOAREN OPTIMIZAZIOAN

Udalerrri batzuetan autokonposta egiten duten pertsonen hondakinen tasa gutxitzen zaie. Eskoriatzan, hobariko zenbatekoa ordaintzeko udalerriko tokiko dirua erabiltzen da, axtrokis izeneko dirua. Axtrokis kontsumo jasagarria eta gertuko kontsumoa sustatzeko sortu zen.

EREDUGARRITASUN-PROGRAMAN

Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek hiri-hondakinen kontabilitatea batzeko programa bat hasi zuten 2012. urtean. Baterako kontabilitateranzko lehenengo pauso oso garrantzitsua izan zen.

Galderak eta erantzunak

1 Zein dira Planeko funtsezko mezuak eta 2020rako duen ikuspegia?

Europako Batzordeak «baliabideen erabileran Europa efizientea izateko bere ibilbide-orrian» hau adierazten digu:

- Per capita hondakinek beherakada nabarmena pairatuko dute.
- Hondakinak baliabide gisa kudeatuko dira, zeren birziklapena eta berrerabilpena ekonomikoki erakargarriak izango diren aukerak izango dira.
- Merkatu funtzionalak garatuko dira bigarren mailako lehengaietarako.
- Erabat desagerraraziko da hondakinak zabortegetan botatzea; eta kalitate handiko birziklapena bermatuta egongo da.

2 Nola egingo dugu hau guztia?

Ardurarekin, lankidetzan arituta eta ikerketarekin, bigarren mailako materialei erabilera berriak emanda eta hondakinak botatzea aukera interesgarria ez den baizik eta azken aukera den esparru berri bat ezarrita.

3 Plan honetan isuriaren gaineko zerga planteatzen al da? Zein da zerga honen nahia? Zein hondakinei eragingo die?

Bi helburu daude: batetik, hondakindegietan zaborrak botatzeari pizgarria kentzea eta, bestetik, birziklapena eta balorizazioa sustatzea. Helburu horrek, baliozta daitezkeen hondakinak izan arren, hondakindegietara eramaten diren hondakinei eragingo die.

4 Plana oso zorrotza da, beste plan batzuk baino zorrotzagoa al da?

Ezin dugu hondakinak sortzeko erritmo hau mantendu eta norabidea aldatu behar da. Plan hau zorrotza da, beste batzuk baino zorrotzagoa ez den arren, zeren 2020ko Hondakinaren Esparru Zuzentzarauaren Europako helburuekin bat egiten du, zehazki, eta 2030erako Hondakinaren Zuzentzarauaren zirriborro berriak (berriki, Europako Batzordean aurkeztu den zirriborroak) planteatzen dituen helburuetarako oinarriak ezartzen ditu.

5 Hondakinak baliabidetzat jotzeko, lan asko egin behar dute hainbat agentek: ekoizpen-enpresek, administrazioak, hondakinen kudeatzaileek... Nork izan behar du prozesu horren buru? Nork du gai honetan ardurarik handiena?

Ardurarik handiena ekoizleak du, baina agente guztien eta administrazioaren lankidetzaz izango du. Nola? Esparru egokia ezarrita: erabilera berriak normalizatuta, beste sektore batzuekin lan eginda, hondakin horiek baliabide gisa integratu dituzten, eta esparru berezia ezarrita, zabortegetan hondakinak botatzea birziklatzea baino aukera onuragarriagoa izan ez dadin.

6 Zergatik azken bost urteetan baliabide izateko «aukera» izan dezaketen hondakin batzuen birziklatze- eta balorizazio-tasak gutxitu edo mantendu dira?

Arrazoiak ez da bakarrik, baina argiena eta irmoena hondakindegiko prezioa oso erakargarria izan dela da. Horrek, krisi ekonomikoaren testuinguru batean, are gehiago zailtzen du birziklapenaren aukera.

7 Elikagaien hondakinek pisu handia dute Planaren prebentzio-programan. Nola prebenitu nahi dira hondakin horiek?

Elikagai-hondakinen ekoizle handiekin (ostalaritzako sektorearekin, banaketako eta elikagaien industriarekin) lankidetzan arituta, hondakin gutxiago sortzen dituzten eta elikagaiak hobeto aprobetxatzen dituzten azpiproduktuak, teknologiak edo teknikak bilatzeko. Gainera, herritarrekin komunitatean konposta egiteko neurria, soberakinak elikagaien bankuei ematea eta antzerako neurriak landuko ditugu.

8 Zergatik hitz egiten dugu ekonomia zirkularrari buruz, zuzenean hondakinak birziklatzeari buruz hitz egin beharrean?

Birziklapena ekonomia zirkularreko alderdi bat besterik ez da. Kontua ez da birziklatzea baita baliabide naturalen erauzpena eta kontsumoa prebenitzea ere. Era berean, berrikuntzaren faktorea beharrezkoa da jasagarriagoak diren produktu berrien eta prozesu industrial berrien diseinuan, hori ekonomia zirkularreko faktore garrantzitsua baita.

Plan honek

- ✓ hondakinen egungo kudeaketa-esparrua zuzentzen du
- ✓ ekonomia-eredu berri bateranzko bidea proposatzen du
- ✓ hondakinei buruzko pentsaera aldatu nahi du, eta hondakinak baliabidetzat jotzea du xede



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO